

**5** astelehena

12:00etan.- Erregeek haurren gutunak jasoko dituzte. Loiazko San Martin plazan.

18:00etan.- Erregeen zamalkada. Herriko kaleetan zehar.

**9** ostirala

19:30ean.- III. ciclo Gospell: The Upper Room Gospell. Udal Batzar Aretoan.

**16** ostirala

22:15ean.- Antzerki Garaia: "El Apagón". Usurbe Antzokian.

**17** larunbata

17:00etan.- Haur zinea: "Olentzero eta oparien ordua". Usurbe Antzokian.

**21** asteazkena

21:00etan.- Ipuin kontaketa (3-6 urte bitartekoentzat). "Munduko ipuinak", Izaskun Mujikarekin. Udal Liburutegian.

**23** ostirala

09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Hiru mosketariak". Usurbe Antzokian.

**24** larunbata

17:00etan.- Haur zinea: "Perez sagutxo 2". Usurbe Antzokian.

**31** larunbata

17:00etan.- Haur zinea: "Winx, erreinu galduaren sekretua". Usurbe Antzokian.

**XXIX. ZIKLOA - 2009** Goieniz

**8** osteguna

21:00etan.- TRISTRAM SHANDY. Michael Winterbottom. Usurbe Antzokian.

**22** osteguna

21:00etan.- TROPA DE ELITE. Jose Padilla. Usurbe Antzokian.



**ERAKUSKETAK**

**9tik 18ra**

Ibaialde erakusketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

**23tik otsailaren 1era**

Susana de los Mozosen pintura erakusketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

**Ordutegia:**

Astelehenetik larunbatera/Lunes a sábado:  
19:00 - 21:00  
Igande eta jaiegunak/Domingos y festivos:  
12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00



**UDAL EUSKALTEGIA**

Matricula abierta hasta 15 de enero. Maila guztiak.



Beasaingo Euskaltegiko zenbait ikasle "Goenkale" telesailaren grabaketan izan dira.

Paper birzikletuan egina 3473-008



## Elkarren beharra dugulako

**6** JAIK  
San Sebastian jaietarako dena prest Garin auzoan.

**8** HIRIGINTZA  
Biark Studioren proiektua hautatu da Gernika Pasealekuko parkea estaltzeko.

**10** ANTZERKI GARAIA  
"Lola ikusten baduzu esaiozu aberatsa dela" dakar Ados Teatroak.





## Beasain iruditan...

### 1954

Beasain Futbol Taldea 1954-55eko denboraldian Senpere futbol zelaian.

**Goian:**

José Antonio Bravo, Antonio Zurbano, Avelino Cuñado, Tomás Lahidalga, Cartuli, Barcina, Juan Jauregi, Víctor Argiñano eta José María Crespo.

**Behean:**

Evilasio Martín, mutikoa, Arina, Juan Aiestaran, Antonio Aranburu, José María González eta Julián Ruiz.



### 1934

Alhondigan 1934an hartutako irudia. Besteak beste, Vicente Tellería, Juan Aranburu eta Pakito Tellería agertzen dira garraioiak aurrean dituztela. 70 urtetik gora ditu argazkiak. Ezin esan ezer aldatu ez denik!



Bere iragana ahazten duen herriak, bere herria ahazten duela esan ohi da. Argazki zahar hauek batzuen oroitzapenak ukitzeko balioko dute.

Argazkiak:  
Kutxa Fototeka

### Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



### URTE BERRI ON! 2009ko AURREKONTUAK

Urte berriari hasiera eman diogu. Urte gogorra iragarri digute. Udalak, orain inoiz baino gogorrago ekin behar dio lanari eta horretan dihardugu burubelari. 2009ko aurrekontu orokorra 18.094.028,50€koa da. Onartutakoa zuzen betetzea dagure eginkizuna.

Labur bada ere atal aipagarrienak aipatuko ditut.

- Etxez-etxeko laguntza zerbitzua-ren kostua %20 igo da, zerbitzuan emango den ordu kopurua handitu delako. Kostua 485.760€koa izango da.
- Parke eta lorategietako mantenimendu zerbitzua indartu egingo da, leku gehiagotara iritsiz eta maizago zainduz. 297.214€ aurreikusten dira horretarako.

Inbertsioetan, hona hemen esanguratsuenak:

- Gernika Pasealekuko jolastokia estaltzea: 300.000€.
- Kale Nagusia eta J.M. Iturriotz oinezkoentzat egokitzea: 1.200.000€.

- Igartza Jauregia birgaitzea: 1.000.000€ (erdia Foru Aldundiaren laguntza izango da).

Horrez gain, Fleming inguruan 24 etxebizitza babestu egiteko egitasmoa du Beasain Lantzenek. Eusko Jaurlaritzak ere Mariaratsen 38 etxebizitza eta Hunolt inguruan beste 38 eraikiko ditu 2009 urtean.

Aurrekontuetan, espaloiak berritzeko dauden 300.000€ eta pantaila akustikoak jartzeko beste 100.000€ak nabarmen igoko dira, izan ere, krisi egoera dela eta, Estatuak emango duen laguntza espaloiak berritu eta pantaila gehiago jartzeko erabiliko baita. Beraz, Errekarte, Igartza Oleta, Mateo Mujika, Foru, Lizeo ingurua, Andra Mari... kaleetako hainbat espaloi zati berrituko dira. Esku bete lan hartu dugu gure gain. Beasainek merezi du.

Ez dezagun ahaztu 2009an gaudela:

URTE BERRI ON!

Hemos dado comienzo al nuevo año. FELIZ año 2009.

Se nos augura un año duro. El Ayuntamiento está haciendo sus deberes. Tiene aprobado el presupuesto del año que asciende a 18.094.028,50€. Es nuestro deber ejecutar con diligencia lo aprobado. Tan solo mencionar algunos datos significativos:

- Se incrementa en un 20% el servicio de ayuda a domicilio consignando 485.760€.

- El servicio de jardinería se prevé mejorar aumentando la frecuencia del servicio y ampliando las zonas de cuidado y se dota con 297.214€.

- Algunas inversiones significativas:
- Construir la cubierta del parque de Gernika Pasealekua: 300.000€.
  - Peatonalizar Kale Nagusia y J. M. Iturriotz: 1.200.000€.
  - Terminar la rehabilitación de Igartza Jauregia: 1.000.000€ (la Diputación aporta la mitad).

Beasain Lantzen contempla el inicio de la construcción de 24 viviendas en la zona de Fleming y el Gobierno Vasco 38 en Mariarats y 38 en Hunolt. Las cantidades presupuestadas para mejoras de aceras (300.000€) y construcción de pantallas acústicas (100.000€) se van a incrementar a cuenta del Fondo estatal de Financiación Local.

¡FELIZ AÑO 2009!



Mari Carmen Bustinduy

**Ex-presidenta del Hogar del Jubilado**

"Duela 15 urte batzar batean lehendakaria behar zutela esan zen eta nik zer egingo eta eskua altxa eta eskaintza gizonetakoentzat bakarrik al zen galdetu. "Zurea da kargua", erantzun zidaten. Azkar pasa dira urte hauek baina izugarri bete naute. Baina jende berriari tokia egitea ona da, ideia eta ilusio berriak sartzen utzi behar da. Horregatik isilik joan naiz. Orain, yoga egiten hasi naiz eta Zahar-Etxeko abesbatzan ere sartu naiz. Urte hauetan nire ondoan izan zaituztedan guztiei eskerrak emateko aprobetxatu nahi ditut lerro hauek. Familia bat izan zarete niretzat".

## Eskerrik asko bizitza pozteagatik

"Cuando en una asamblea del Hogar del Jubilado dijeron que hacía falta un presidente no se me ocurrió otra cosa que levantar la mano y preguntar si la oferta iba sólo dirigida a hombres. "Adjudicada, es usted la presidenta", me respondió el señor que llevaba la batuta en aquella reunión. Tengo el honor de ser la primera mujer presidenta de los Hogares de Gipuzkoa. Fue hace 15 años. 15 años no son más que un parpadeo, como la vida misma. Pero también puede ser toda una eternidad. En mi caso, el Hogar del Jubilado me ha brindado la oportunidad de vivir acompañada de una gran familia. El homenaje a los más mayores era uno de los acontecimientos más emotivos. Puede que sea porque no tengo madre, pero los más mayores despiertan en mí una enorme ternura. Bales, sorteos, concursos... Recuerdos. Mi filosofía es la de "¡que nos quiten lo bailao!". He dedicado tantas horas a organizar actividades y a mantener aquello al pil-pil que ahora tengo que llenar las horas. Lo cierto es que nunca me dio pereza y lo hice con todo mi amor. Me llenaba mucho. Ahora me he apuntado al yoga y al Coro del Hogar. Y es que los relevos y los cambios siempre son positivos. Hay que innovar, llenarse de nuevas ideas e ilusiones. Me he ido en silencio pero no quiero dejar pasar esta oportunidad para expresar mi agradecimiento a todas esas personas que me han acompañado y han alegrado mi vida".

### Beasaindar guztien esku dago

### OHARRA

Editorea:  
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:  
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 50



udala@beasain.net

www.beasain.net



[ Beasain ]  
egunez egun

# Zahartzaro goxo-goxoa

[ Beasain ]  
egunez egun

Goiaz Estensoro eta Amaia Ayala. Goxara enpresaren arduradunak.

## “Jendeari goxotasuna ematea da gure printzipio nagusia, profesionaltasunarekin eta konfidentziasunarekin batera”

Besteak beste, Beasaingo Eguneko Zentroaren eta Etxez Etxeko Laguntzaren kudeaketa daraman enpresa da Goxara. Udalak dituen babestutako lau etxeetako langileria ere Goxarakoa da. Goiaz Estensoro eta Amaia Ayala dira arduradunak. Biak gizarte langileak dira. Gaur egun, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak 85 erabiltzaile ditu eta 23 langileren artean eramanen dute. Eguneko Zentroan, berriz, 21 lagun dituzte. Argi dute pertsonekin egin behar dutela lan eta garrantzitsuena, haien bizi-kalitatea bermatzeaz gain, konfidentziasuna gorde eta goxotasuna ematea dela.

### Zer eskaintzen da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren barruan?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua goizeko 07:00etatik 22:00ak arte eman daiteke. Lehenbizi, Udaleko Gizarte Langileak bisita egiten dio zerbitzua nahi duenari eta, irizpide jakin batzuk erabiliz, erabakitzen du zenbat ordu dagokion bakoitzari. Egunean, gehienez hiru ordu izaten dira eta asteleheneratik larunbatera. Igande eta jai-egunetan ere ematen da udal teknikariak hala eskatzen badu.

### Arreta pertsonala eta etxeko garbitasuna ematen dira, edo biak, ezta?

Bai. Etxeko garbitasunari gehienez astean lau ordu eskaintzen zaizkio eta arratsaldeetan egiten da. Arreta pertsonala behar duenak ezin izaten du arratsaldera arte itxaron. Normalean laguntzailea arduratzen da erabiltzailea ohetik altxatzeaz, bere garbiketaz, janzteaz eta baita, behar izanez gero, botikak emateaz ere, zeren askotan ahaztu egiten zaie edo nahastu egiten dira. Erabiltzailearen gela eta komuna ere garbitzen dira eta baita, kasu askotan, bazkaria eta afaria prestatu ere. Etxez Etxeko Laguntza jasotzen duten asko Eguneko Zentroan etortzen dira eta laguntzailea arduratzen da aitona edo amona hori prestatu eta Eguneko Zentroan eramanen dituen furgonetaraino eramateaz.

### Erabiltzaileen ongizatea da zuen lehentasuna.

Hori da. Argi dugu langileak direla euren etxeetara sartzen direnak eta horrek errespetua, profesionaltasuna eta konfidentziasuna eskatzen ditu. Baina horrez gain, jendearekin ari gara lanean eta goxotasun bat eman behar diegu. Hori %70a da. Hori da gure printzipio nagusia.

### Enpresari dagokionez, langileen formakuntzan ahalegin berezia egiten duzue, ezta?

Etengabeko formakuntza eskaintzen diegu. Ikastaro ezberdinak egiten dituzte, pisua nola erabili, yoga, estresa nola kontrolatu... Gure enpresak langileei berme bat ematen die. Kontratua, segurtasuna... Norbaitek baja hartzen badu, zerbitzua ez da eteten, beste pertsona batek ordezkatzen duelako. Zentzu horretan, erabiltzaileak lasai egon daitezke.

La vida tiene retorno. Volvemos a la niñez. A no valernos por nosotras/os mismas/os. A necesitar el cariño de los demás. A la inseguridad de soltarnos de la mano. No podemos volar sólo/os. En eso, el destino es democrático. En mayor o en menor medida, nos pasa a todos. Y ahí nos encontramos a gente como Goiaz Estensoro y Amaia Ayala, responsables de la

empresa Goxara. Hay empresas que fabrican cantidades industriales de calidad de vida y cariño para las personas mayores. Es su caso. Con ellas, nuestros abuelos y abuelas vuelven a tener a quién agarrar de la mano cuando los suyos no estén. Cuantas más vueltas dé el reloj, más nos acercamos a su Centro de Día o a la necesidad de Ayuda a Domicilio.



Malu Valles. Concejala de Bienestar Social.

## “El coste para el usuario de la Ayuda a Domicilio depende de su capacidad económica”

Mucha gente acude a la economía sumergida cuando necesita a una persona que cuide de un familiar. En ese sentido, la concejala de Bienestar Social del Ayuntamiento, Malu Valles, recalca que “el servicio que se presta desde el Ayuntamiento, a través de la empresa Goxara, es un servicio con garantías y respaldado en todo momento por los responsables municipales”. El presupuesto para la partida de la Ayuda a Domicilio para el 2009 es de más de 485.000 euros.

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Malu Vallesek dioenez, gaur egun, jende askok etorkinetara jotzen du etxekoren baten zaintzaz arduratzeko. Zentzu horretan, adierazi nahi du Goxara enpresak berme bat eskaintzen duela eta Udalaren babes osoa duela. “Herritarrek gero eta zerbitzu gehiago eskatzen dituzte eta kalitate handiagokoak. Hori ona da, zorrotza izatea eskatzerakoan, baina informatu ere egin behar da. Askok ikusten dituzte Gizarte Zerbitzuak botere ekonomiko eskaseko jendearantz bezala eta ez da horrela”.

Udalak Goxara enpresa kontratatu zuen lehiaketa bidez Eguneko Zentroa, Etxez Etxeko Laguntza eta babestutako etxeetako langileria kudeatzeko.

Erabiltzaileek euren diru-sarreraren arabera ordaintzen dituzte zerbitzu horiek. Udala arduratzen da finantziarioa osatzeaz. Etxez Etxeko laguntza, esaterako, orduko 17,53 euro kostatzen da baina kasu gehienetan erabiltzaileak askoz ere gutxiago ordaintzen du. 2009rako, Udalak zerbitzu hori eskaintzeko inbertituko duen partida 485.760 eurokoa da.

Udaletik duten beste erronketako bat da Arangoiti egoitza plaza gehiagorentzat egokitzea. 71 lagunentzat dago tokia eta Vallesen esanetan, 2011n 30 pertsona gehiago sartu ahal izango dira.



Antonia Casado  
Etxez Etxeko Zerbitzuaren eta Eguneko Zentroaren erabiltzailea

“Tere, nire laguntzailea, alaba bat da niretzat”.

“Tere, la auxiliar domiciliaria que me ayuda, es como una hija para mí. Estoy muy contenta porque yo en casa no puedo hacer nada y ella se encarga de la limpieza de la casa dos veces a la semana. Antes iba a diario pero desde que empecé a venir al Centro de Día va dos veces. Es una bella persona. Si me hace falta algo, me hace hasta algún recado porque yo vivo sola y no tengo a quién pedirselo. Le dejo en un papelito de la cocina lo que tiene que hacer porque cuando va yo suelo estar en el Centro. Me cuida muy bien”.

José de Arriba  
Eguneko Zentroaren erabiltzailea

“Oso atseginak dira hemengo langileak, ondo hartzen gaituzte”

“Ezer asko ez dugu egiten. Eskulanak, gimnasia apur bat... orain arte, kalera ateratzeko ere euria egin du egun askotan eta hementxe hobeto. Furgonetan ekarri eta eramaten gaituzte. Hemengo langileak oso neska atseginak dira eta ondo hartzen gaituzte. Hoberena egiten ditugun txokolatadak eta ostiraleto bingoa dira”.

Antonia Muñoz  
Etxez Etxeko Zerbitzuaren eta Eguneko Zentroaren erabiltzailea

“Nire alaba oso goiz joaten da lanera eta Rosak, laguntzaileak, jaikitzen nau ohetik”.

“A mi casa viene Rosa. Me ayuda a levantarme de la cama, a cambiarme, en fin, a ponerme guapa para venir al Centro de Día. Eso, de lunes a viernes. Es maravillosa. Yo vivo con mi hija pero uso el takatka y no puedo hacer nada. Está siempre pendiente. ¡A lo que hemos llegado! Tenemos que dejar que nos ayuden y agradecerlo. ¡Con lo que he sido! Ya no quiero dar mucha guerra, aunque tengo un carácter muy fuerte. Mi padre también lo tenía. Y aquí en el Centro, lo que más me gusta es pintar. Hacemos gimnasia, leemos el periódico, los viernes jugamos al Bingo, celebramos los cumpleaños con una chocolatada... nos viene bien. Y la comida es buena, casera”.





# San Sebastian jaietarako dena punttu-punttuan Garinen



**El tiempo lo cambia todo. Hace no tantas décadas, la víspera de San Sebastián era un día de trabajo arduo para las mujeres del barrio. Mataban unas cuantas gallinas y hacían caldo para los invitados que llegarían al día siguiente. El 20 de enero, el sacristán hacía sonar las campanas y empezaba la fiesta. Al día siguiente se seguía y el fin de semana siguiente celebraban las repeticiones. Con gallinas o sin ellas, las fiestas del barrio se siguen celebrando a lo grande. Comida, partida de mús, trikítularis... ¿quién da más?**



**G**arin auzoan San Sebastianak ospatzen dira. Festak denboraren poderioz asko aldatu dira baina oraindik behera jaitzi diren auzotarrentzat aitzakia borobila da jai giroan asteburu bat ospatzeko. Jesus Mari Lasa, Ramon Mujika, Justo Mujika eta Jose Inazio Aranburu ibili dira azken urteetan festak antolatzen. Aranburu Garingo auzo-alkatea edo errejidorea ere bada. Bere hitzetan, 15 bat lagun biziko dira auzoan. "Kontatzen zailak ez daude", dio. Hangoxia zen duela urtebete inguru zendu zen 110 urteko emakumea, Placida Insausti. Bazterretxe etxekoa, alegia. Hantxe egiten da festa orain, Bazterretxe plazan. "Saso batean, eliza aurreko plazan izaten zen dantzaldia. Ttuntturroak eta txistulariak zimiterioan aritzen ziren". Hamaika usadio geratu dira bidean. "Lehen San Sebastian egunean bertan ospatzen ziren jaiak. Ondo gogoan dut nola nire amak, beste batzuekin, bospasei oilo hil eta lapiko handi batean salda egiten zutenekoa. Beti izaten zen izebaren bat edo, etxera sukaldean laguntzera etortzen zena". San Sebastian egunean sankristauak kanpaia jo eta suziriak botatzen zituen. Meza Nagusia eguerdi aldera izaten bazen ere, goizean goiz beste meza bat ematen zen gero bazkaria prestatzeagatik bigarrena joatea ezinezkoa zitzaientzat. "Meza ondoren, soinu-joleak izaten ziren jai giroa jartzen zutenak eta handik denok mahaira, bakoitza bere baserrietara gonbidatu asko izaten baitzen. Arratsaldean ere izaten zen zer ikusi eta iluntzean, berriro, afaltzera. Gonbidaturik ez zen etxeraten afaldu gabe". Hurrengo egunean jarraipena ematen zitzaion. Gonbidatu gutxiagorekin, auzotarrek bapo gozatu ohi zuten. "Eta hurrengo igandean errepikapena izaten zen. Dantzaldia". Orain jendeak ez omen du dantza gehiegi egiten. "Saiatu saiatzen gara. Iparraldeko jendea ere etorri izan da abestera afari baten truke". Urtero 60 bat lagun elkartzten dira bazkaltzeko Muñogain elkartean. Aurten 24an eta 25ean ospatuko dituzte San Sebastianak. Larunbatean, bazkal ostean, mus txapelketa jokatzeko dute auzoko zortzi bikoteren artean. Haur-jolasak eta trikítulariak izaten dira arratsaldean. Hurrengo egunean, igandean, goiz eresia jotzen dute Beasaingo txistulariek. "Meza Nagusia San Martin Abesbatzak eta herritarrok Angelis meza abesten dugu". Eta toki askotan ez ezaguna den ikuskizun batez gozatzeko aukera ere izaten dute. Ezkil errepika. Nafarroan eta beste zenbait tokitan sarriago entzun daiteke baina Gipuzkoan ez da oso ohikoa. Idi-probak, txistulariak... egitarau borobila.



Birgaitze Planaren fotomontajea.

## Jose Martin Arana, Bideluze eta Jose Migel Iturriotz kaleetako eraikinak birgaitzeko asmoa du Udalak

**La Consejería de Vivienda y Asuntos Sociales ha declarado la zona como Área de Rehabilitación Integrada, de modo que los vecinos tienen la oportunidad de beneficiarse de las ayudas económicas del Gobierno Vasco destinadas a la renovación de fachadas, instalación de ascensores, etc. En estos momentos, la empresa Aytasa, encargada de gestionar todo el plan de trabajo, ha comenzado a pedir los permisos pertinentes a los vecinos para realizar la Inspección Técnica de Edificios, que correrá a cargo del Ayuntamiento. Para llevar a cabo el plan de rehabilitación y beneficiarse de las subvenciones, hace falta la aprobación del 40% de los vecinos.**

Udalak Jose Martin Arana, Bideluze eta Jose Migel Iturriotz kaleetako bizilagunei triptiko bana bidali berri die euren etxeak berritu ahal izateko duten aukera eta izango dituzten erraztasunak azalduz. Izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak zonaldea Integratutako Birgaitze Area gisa izendatu du. Horri esker, berritze lanak gauzatzeko bertako bizilagunek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak izango dituzte. XX. mende hasierako eraikinak dira eta 167 etxebizitza daude. Gaur egun, 284 lagun bizi dira hor. Udalak etxe horiek berritzeko asmoa du, horretarako bere esku dauden erraztasun guztiak emanez bizilagunei. Izan ere, Udalaren ardura da etxeei zutik eta itxura onean eustea. Lanen kudeaketaz Aytasa enpresa arduratuko da. Momentu honetan baimenak eskatzen ari da eraikinen ikuskapen teknikoak egin ahal izateko. Udalak ordainduko du lan hori. Ikuskapen horrek erakutsiko du benetan zer premia dituzten etxebizitza horiek. Egitura berritu, fatxadak konpondu, igogailuak jarri... Aytasa enpresako Eli Manterolak azaldu duenez, "Birgaitze Plana aurrera ateratzeko %40k baiezkota eman behar du. Bestela ez da egingo eta diru-laguntzak jasotzeko aukera galdu egingo dute". Unea iristen denean etxebeek adostasun batera iritsi beharko dute diru-laguntzak eskatu eta aurrera egin ala dena bertan behera utzi erabakitzeko. "Diru-laguntzak -dio Manterolak- zenbatekoak izan daitezkeen esatea oraindik ezinezkoa da. Proiektu bat landu eta laguntza eskatzen denean, gero Jaurlaritzak bizilagun bakoitzari erantzun dio berari zenbat diru dagokion esanez". Prozesua faseka gauzatu da bizilagunek hala nahi badute behintzat. Informazioa eta aholkularitza eskaintzeko, Udalak Herritarren Arreta Bulegoa zabaldu du. Bertan aritzen da goizetan Eli Manterola, interesa dutenei zailtzak argitu eta argibideak emateko.



Begoña Lasa

Presidenta de la Comisión Municipal de la Rehabilitación de la Calle Arana

**"Lo primero de todo es ver en qué estado se encuentran las estructuras de estos edificios"**

**El Ayuntamiento ya ha dado el primer paso, ¿no es así?**  
Por el momento, se ha contratado una empresa dedicada a la rehabilitación de edificios y realojos. Hemos pedido que técnicos especialistas nos hagan un informe para ver en qué estado se encuentran las estructuras de esos edificios. Para ello, necesitamos la colaboración de los vecinos, que son los que tienen que decidir. No es sólo decir, "lo vamos a poner bonito". Hasta entonces no podemos hablar de nada. Si la estructura estuviera bien, empezaríamos a hablar de la rehabilitación de las fachadas, instalación de ascensores...  
**Los vecinos ¿qué facilidades económicas tendrán?**  
El Gobierno Vasco ya ha dicho que nos ayudará pero no disponemos de datos concretos todavía. De momento,



Eli Manterola, informazio bulegoan.

el Ayuntamiento se hará cargo del coste que supone el informe técnico.

**El Ayuntamiento ha distribuido unos trípticos informativos a todos los vecinos interesados, ¿no es así?**

Efectivamente. Además, se ha abierto una Oficina de Atención dirigida a los vecinos que deseen información o asesoramiento. Se abre por las mañanas.

**¿Qué ventajas conlleva la rehabilitación?**

Se trata de ofrecer una mejor calidad de vida a la gente que vive en esos edificios y hacerlo dándole unas facilidades económicas que de otro modo no sería posible. A nivel económico, la rehabilitación revalorizará todas esas viviendas. No hay que olvidar que están en el centro del pueblo.

**Si se tuviera que realojar a los vecinos, ¿cuál sería la solución?**

Se les realojaría en viviendas de protección oficial que se construirán en Mariaratz porque tampoco estamos hablando de hacer todo esto entre hoy y mañana.

Mikel Oiarbide  
Bizilaguna

**"Nik ez dut dirurik gastatu nahi fatxada politagoa jartzeko. Fatxada eta teilatua duela 12 bat urte konpondu ziren eta nahikoa txukun daude eta ez diot horri garrantzia handiegia ematen. Garrantzitsua niretzat igogailua da. 5. solairuan bizi naiz eta elbarritasun bat daukat. Beraz, berriro eskailerak igotzekotan, nahikoa dut orain daudenekin. Bestetik, bai edo ez esateko oraindik ez dugu nahikoa datu. Entzun dut diru-laguntzak %80a iritsi daitezkeela, baina hor kontutan hartu beharko da zer diru sarrera dituen aukozide bakoitzak, bakarrik bizi al den... Dakidanarekin hori da esan dezakedana zeren abendura arte jakindako guztia egunkari bitartez jakin dugu eta uste dut gutxienez administrazio aurretik zerbait esan behar zitzaiela, proiektua publiko egin aurretik."**



[ Beasain ]  
egunez egun

# Biark Studio gana el Concurso de Ideas para el Cubrimiento de Espacios de Recreo

Asier Hormaeche y Aritz Etxebarria  
Arquitectos



Los arquitectos de Arrasate, Asier Hormaeche y Aritz Etxebarria, proponen cubrir el frontón y el parque de Gernikako Pasealekua con una estructura de lona, "que prácticamente "vuele" sobre el espacio, con apoyos mínimos". La cubierta que han diseñado se asemeja a un trozo de papel que adquiere infinidad de formas tras haber jugado con él y doblarlo. Por eso lo han llamado "Papiroflexia", propuesta que ha competido con otras 18 ideas.

Beasaingo Udalak herriko aisia guneak estaltzeko ideia lehiaketa abiatu zuen. 19 proiektu aurkeztu ostean, epaimahaiak Biark Studioko Asier Hormaeche eta Aritz Etxebarriak egindakoa eman du irabazletzat. "Gure asmoa zen parkea estaltzea egitura arin batekin. Bagenekien gune hori haurrek erabiliko dutela batik bat eta nahi genuen horrekin ere harremana bilatzea, alegia, erabiltzaileekin". Hortik abiatuta, "Papiroflexia" proiektua landu zuten. "Hori izan da gure leloa. Paper batek tolestatuta milaka forma har ditzake. Guk paperaren ordeztu olana edo lona aukeratu dugu, tiranteak eta zutabeak erabiliz eusteko".


Egitura horrek gainera bi guneak, hau da, pilotalekua eta parkea, bereizteko balio die, tolesturak plano ezberdinak hartzen baititu.

Arkitekto arrasatearren esanetan, olanak arina izateaz gain, jartzeko ez du zailtasun handirik. "Ikusi genituen beste proposamen batzuk asko igotzen ziren aurrekontu aldetik. Guk hori ere kontutan hartu nahi izan dugu".

Orain arteko ideia izatetik ez da pasa. Teknikoki orain hasten da faserik zailena, buruan eta papelean duten proiektua nola gauzatu ikusteko irtenbideak bilatu behar baitituzte. "Ikusi behar dugu estalkia nola finkatu".

Estali beharreko guneak 45 x 15 metroko azalera du. Aukera zezaketen Dolarea parkea edo Barandiaran Plaza ere. "Guk Gernikako pasealekua hartu dugu zeren Dolarea parkea erdi-biribila da eta beste erabiltzaile batzuk izango ditu, ez haurrak. Kontzertuak, hitzaldiak, e.a. emateko gehiago da. Barandiaran Plazan, berriz, ume-jolasak daude baina zati bat estalita dago eta hori egon daiteke jendea babestuta. Itxita dago. Gainera, biak urrutia daude herrigunetik".

**Los trabajos para la cubierta del parque y del frontón se realizarán este mismo año.**



## Eta zuk zer irizten diozu?



"Ez daukat oraindik esperientzia askorik parkeetan nire haurra txikia delako, baina hala, eguraldi txarrekin ere aprobetxatzeko moduan egongo da tokia. Pentsa, oraintxe bertan ere, euria ari duela, estalita egongo balitz...".

Maddi Auzmendi



"Hori horrela gaizki dago. Estali egin behar da. Ni zahartuta nago hor egoteko baina gustatzen zait mutikoak pilotan-eta ikustea jolastan. Estalita, askoz hobeto egongo da".

Inazio Izagirre



"Niri oso ideia ona iruditzen zait, nahiz eta gu Lazkaon bizi garen eta gehienetan han ibili. Negurako oso ondo dator parkea estaltzea. Beharrezkoa da. Euria egiten badu, bestela zer?".

Ainhoa Garmendia eta Aratz Meliz



## Idea Lehiaketara aurkeztutako proiektuak ikusgai

Udalak abiatutako Aisia Guneak Estaltzeko Ideia Lehiaketara aurkeztutako proiektuak ikusgai egon dira abenduaren 10etik 16ra Usurbe Antzokian. Guztira, 19 proiektu aurkeztu ziren. Dolarea Parkea, Barandiaran Plaza edota Gernikako Pasealekuko frontoia eta parkea estaliko zituen ideiak eskatu ziren.

[ Beasain ]  
egunez egun

Naiara Goenaga  
Arkitektoa



## "Aurkeztutako proiektuetan irabazlea orekatuena da"

Naiara Goenaga beasaindarra arkitektoa denez, epaimahaiak hartutako erabakiaren inguruan zer iritzirik duen galdetu diogu. Bere ustez, Biark Studiok aurkeztutako "Papiroflexia" aurreproiektua "konpletoena" da. "Beasaingo aisia guneak estaltzeko egindako ideia lehiaketan parte hartu duten proiektuetan orekatuena dela uste dut. Ados nago epaimahaiaren erabakiarekin. Hala ere, proiektuaren arrakasta gauzatzeko proiektuaren garapeneren mepe dago".

Goenagaren esanetan, hasiera batean beretzat oinarritzokak diren baldintzak betetzen ditu Asier Hormaeche eta Aritz Etxebarriak aurkeztutako proiektuak. "Frontoia eta parkea osoki estaltzen ditu. Beste batzuk, aldiz, zati bat estaltzea proposatzen zuten. Hala, estalkiaren egitura libre uzten du gune osoa oztoporik sortu gabe". Formari erreparatu gero, estalkiak sortzen dituen tolesturak erakargarriak izateaz gain, "materialaren gardentasunari esker, estaltzen duen espazioa argitsua izan daiteke".

Idea exekutatzeko sor daitezkeen zailtasunak ere kontutan hartu beharrekoak dira. "Nire ustez puntu kritikoetako bat garapenera begirakoa da, egiturak oztoporik ez sortzea pilotalekuaren inguruan, altzairuzko zutabeak eta tenkagailuek, alegia". Gainera, Naiararen ustez kontutan hartu behar da estalkiaren mantenua eta garbitasuna, Ionazkoa baita. "Euri urak modu egokian jaso eta kanporatu behar ditu". Beste lorpen bat proposatutako formaren berezitasuna ahal bezainbeste mantentzea izango da.

**"Estoy de acuerdo con la decisión del jurado. Pero como ocurre en todos los concursos de ideas, el éxito de un proyecto está en su desarrollo".**



# Antzerkia Beasainen oholtzara begira

Puntako antzezlanak ekarriko dira Usurbe Antzokia Ordiziak eta Beasainek antolatzen duten Antzerki Garaia egitarau barruan.



## “El Apagón”, Kanpingags.

¡Vaya lío que se ha armado!

“El Apagón”, que se estrenó en el Festival de Teatro de Santurtzi, abrirá la temporada de teatro de Beasain el próximo 16 de enero en Usurbe Antzokia, de la mano del grupo de teatro Kanpingags. En esta ocasión, la compañía creada por Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Xabier Agirre y Patxi Barco han optado por escenificar una obra de Peter Shaffer. Un trabajo pensado para hacer reír al público. Y es que ¡la que se va a liar por un apagón! Bueno, por un apagón y por más cosas. Brindsley, un joven artista y su novia Clea esperan a un reconocido coleccionista de arte cuando se va la luz. Entretanto, van llegando el padre de Clea con la intención de conocer el novio de su hija, el vecino, una ex novia de Brindsley... el enredo está garantizado. Por fin llega el electricista y... es comedia en estado puro. No tiene otra definición.

Entre otros, forman el elenco de actores Itziar Ituño, Asier Hormaza, Alfonso Díez, Klara Badiola y Ramon Ibarra.



## “Maldito parné”, Glu Glu produkzioak.

Patxi Pérez: “Esta obra es para divertirse, una comedia con cierta dosis de acidez”

Si pedimos al director de “Maldito parné” Patxi Pérez, conocido por su papel en “Mi Querido Klikowski”, que nos defina la obra, no lo duda: “Fantástica. Eso es como preguntar a una madre qué tal es su niña”. Es una comedia para divertirse. “Para pasar un rato agradable, una obra de entretenimiento con cierta dosis de acidez, es decir, lo que nos toca vivir”.

La obra se estrenó en octubre y la respuesta del público hasta el momento ha sido muy buena. “La gente sale con buen sabor de boca. Se trata de cuatro limpiadoras, personajes cotidianos, sencillos con los que la gente se identifica con facilidad. Hay un elemento masculino que es un cubano y con él la función coge velocidad. Se habla del bien y del mal”. Y es que las limpiadoras se encuentran con dos millones de euros y tienen que decidir en un minuto si coger el dinero o dejarlo para que lo cojan otros. Ahí entran en juego las relaciones humanas y es cuando empieza a haber fisuras”.

El texto es de Carmen Pombero y protagonizan la obra Ana Pérez, Pilar Guerra, Mari Cruz Melgosa, Miriam Cabeza y Óscar Vázquez.



## “Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela”, Ados Teatroa.

Garbi Losada: “Bizitza margotzen joaten zaren mihise bat da, eta apur bat harraskatuz gero, ezkutatu ahalegindu zaren guztia agerian geratzen da”

Isabel irrati esatari ezaguna da eta egun batetik bestera arrastorik utzi gabe desagertu egiten da. Inork ez daki ez non dagoen, ez zer gertatu zaion. Ikerketak hasten direnean bere lagun minek ere ez zekizkiten gauzak ezagutarazten dira. Garbi Losada zuzendariaren hitzetan, nahi izan du erakutsi “nola litekeen norbait ezagutu, berarekin benetako maitasun harreman bat mantendu eta egun batetik bestera konturatu ez zuela zipitzik ere ezagutzen. Suspensea nagusitzen da urrian estreinatutako antzezlan honetan. Horrela definitzen du Losadak: “Bizitza mihise bat bezalakoa da. Margotzen joaten zara eta gustatzen ez zaizkizun gauzak tapatzen aldi berean. Baina apur bat harraskatuz gero, ezkutatu guzti hura agerian geratzen da. Bizitzako ekipajea da eta horixe esan nahi nuen”. Azken finean, intriga, desagerketa eta bakardadea uztartzen dira, izenburu iradokitzaile horren aspian. Lierni Fresnedo, Kandido Uranga eta Ainhoa Aierbe dira aktoreak.



## “Ahuntza...nor den Sylvia”, Txalo.

Absurdia eta probokatzaila

Otsailean estreinatuko da Donostiako Antzoki Zaharrean “Ahuntza... nor den Sylvia” antzezlan Carlos Zabalen zuzendaritzapean. Euskal Herrian puntan dabiltzan aktoreak igoko dira oholza gainera Edward Albeeren obrari bizitza jartzeko.

Tragedia da. Drama mingarria. Martin, Pritzker saria jaso duen arketekoa eta Elena emaztea dira protagonistak. Bikote ideala osatzen dute eta denen aurrean harreman perfektua dute. Itxuraz. Izan ere, perfekzioa une batetik bestera hauts daiteke eta horixe gertatzen da Martinek aitortzen duenean Sylviarekin maiteminduta dagoela. Baina Sylvia ahuntza da. Basapiztitzat hartuko dute Martin bere inguruko aitorpen hori egiten duen unetik. Surreala, absurdua, probokatzaila...

Ramon Agirre, Asier Hernandez, Ane Gabarain eta Asier Orue sagasti dira aktoreak.



### Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean

Urtarrilaren 9an  
Ate joka. (Txalo).

Otsailaren 6an  
Sexo gratis. (Kunka!).

Otsailaren 27an  
Ohean. (Mascarada).

Martxoaren 27an  
Los ángeles no tienen hélices. (Dani Pérez).

## Haurrentzako zinea

Beasaingo Udalak, urtero legez, haurrentzat euskarazko zine kanpaina abiatu du. Urtarrilaren 17tik martxoaren 14ra, zortzi film eskainiko dira. Emanaldiak larunbatetan izango dira, Usurbe Antzokian, arratsaldeko 17:00etan.

### Urtarrileko eskaintza

#### Olentzero eta oparien ordua

Gogor aritu beharko dute Anjek, Marik eta beraien lagunek herrira bakea itzultzea nahi badute. Herriko nagusiak elkarrekin erretxinduta dabilta, mesfidati. Honen guztiaren errua hegazkinarekin inguruko mendietan istripua izan duen atzerritar batek dauka. Gauzak erabat aldrebestuko dira Olentzeroren ordulari magikoa desagertzen denean.



#### Perez sagutxoa 2

Lucas 8 urteko ume bat da, eta jakin nahi du Perez Sagutxoak txanponak hortzengatik inor enteratu gabe nola aldatzen dituen. Jakiteko saiakeran Perez Gil Penkoffen eskuetan eroriarazten du. Enpresa gizon honek intentzio bakarra du: aberastea sagutxoaren sekretua zabalduz.



#### Winx: erreinu galduaren sekretua

Hamasei urte pasa dira mundu magikoko azti boteredunek gaizkiaren indar ilunen kontra borrokatzeko lan handia egin zutenetik. Orain, erreinu galduaren azken patua neskato baten eskuetan dago: Bloom, "Suzko Garradun Dragoiaren Maitagarria". Winx Klubeko betiko lagunekin batera, Bloom-ek desafio gogorra jasan beharko du.



### Aurreikusten den egutegia

Urtarrilaren 17a: Olentzero eta oparien ordua  
Urtarrilaren 24a: Perez Sagutxoa 2  
Urtarrilaren 31: Winx, erreinu galduaren sekretua

Otsailaren 7a: Ahatetxo itsusia  
Otsailaren 21a: RH+ Sevillako banpiroa  
Otsailaren 28a: Basoko izpiritua

Martxoaren 7a: Shin Chan eta helduen inperioa  
Martxoaren 14a: Dubidoso magoa

Larunbatetan, arratsaldeko 17:00etan